

Pirinioetako

IV. Mikroipuin

LEHIAKETA

LIBURUXKA



AURKIBIDEA

Kategoria orokorra

1. saria

Urrobi, Patxi Gaztelumendi 4

2. saria

Arrats oskorri, bihar euri, Peio Ardaiz Gale 5

Aurkeztutakoak

(Zure) konexioa, Puy Ziaurritz Jaso 6

Inbasioa, Xanti Begiristain Madotz 7

1516ko martxoak 20 ditu, Iker Alfonso de Miguel 8

Ardien marraka, Nati Sancet Tanco 9

Pirinioen lur azpian, Peio Zabala Bengoechea 10

"Zu zarelako nire bizia; bai, nahi dut", Aitziber Ganuza Quel 11

Sinkronizazioa, Imanol Ubau Galarza 12

Tarrapata, Patxi Iriarte Uztarrotz 13

Iruñan, 1525eko martxoa, Oihane Zuberoa Garmendia Glaria 14

Eroriz oroitu, oroimenez erotu, Asier Alastuey Ustés 15

Euskara ikasleak

1. saria

Zorteko eguna, Tere Barberena del Rio-Maite Maisterra Antxorena 17

Aurkeztutakoak

Suaren itzalak, Cristina Saura-Jara de la Parte-Mikel del Rio 18

Amets bat, Juan txo Merino Iriarte-Miguel Angel Lorea Burusco 19

Gure istorioa, Izaskun Salicio Castillo 20

Epaimahaia:

Josu Jimenez Maia

Mikel Albisu Iriarte

Tere Iribarren Larrea

KATEGORIA OROKORRA



Urrobi

Autobusetik jeitsi eta oinez noa plazaraino. Bizikleten aparkalekuan, mugikorrarekin QR kodeari argazkia egin eta prest da bizikleta. Motxila bizkarrean, bide gorritik noa.

Debekatuta dagoen arren, atsegin dut errepidean musika entzutea.

Ibai ertzeraino heldu naiz oharkabea. Ibil bedi taldearen kantua entzuten ari naiz. Atsegin ditut. "Lotzen zaituen hori bilatu eta bidea ederra izatea".

Bapatean, kantuari jarraika noala, bidean galdu naiz. Ez dakit errepidetik noan, erreka bazterretik, edo ibai zabal honetan murgildu ote naizen. Errekan gora noa oharkabea.

Udaberria, pagoak hostoak ematen hasi dira. "Harri sendo bat da uretan diren bi hankek behar duten guztia". Zabaldutut besoa, Urrobin bustita esnatu naiz.

Patxi Garztelumendi (Orbaizeta)
1.saria



Arrats oskorri, bihar euri

Ilunsentiak laranja margotu zuen Arrakoko lepoa. Lantxerra astiro jaisten ari zen Lakoratik. Ana beti liluratzen zuen Ibarra handik ikusteak.

- Benga, goazen!

Atera bezain pronto Ana buelta eman zuen.

- Ana! Nora hoxe?

- Amaren lepokoa, galdu dinat!

- Azkar, besteak galduko baititinagu!

Azken eguzki-izpiak urre-distira eragin zuen belarren artean.

- Hemen zagon! Goazen!

Gero eta ilunago zegoen, lantxerra gero eta itxiagoa; bidea desagertu egin zen. Bat-batean txistua entzun zuten.

- Juan izan behar dun! Goazen!

Zakutoak bota eta korrikatzen hasi ziren; gero eta ozenago entzuten zen.

- Hemen zauden!

Baina inor ez zegoen. Haizeak harrien artean txistukatzen zuen. Bi ainariek elkar besarkatu zuten gauaren iluntasunean.

Peio Ardaiz Gale (Erronkari)
2.aria



(Zure) konexioa

Nora doa begirada baten ukitua, zuk sentitu ezin duzunean. Nora hitz baten esanahia entzuteko prest ez zaudenean.

Hori gertatu zitzaidan deskonexio garai hartan. Adi egoteko beharrezkoa izan eta ezin. Iluntasunean murgildu ninduen erlazio hark, giza loturak identifikatzeko gaitasun gabe utzi ninduen. Hutsunea, noraeza...

Topatu ginenean, zure lasaitasun horrek astindu ninduen. Hiru egun besterik ez ziren izan, baina nire bila etengabe ibili zinen. Zure mamuen atzetik imajinatzen dut...

Konektatu nintzenean, ez zeunden, joana zinen. Orain mamuak nik ditut, non zauden? Hasi gaitzezke berriro?

Puy Ziaurritz Jaso (Orbaizeta)



Inbasioa

Sryna Bunko, neskatila ukrainarra, gauean, gozoro zegoen ohatzean, lo, bat-batean eztanda beldurgarri bat entzun duenean; ikaragarri izutu da. Jarraian, beste bat eta beste asko; ez dira bukatzen: bonbak, misilak, tiroak, leherketak, oihu bihotz-erdiragarriak...

Sryna-k:

- Azkar, Parguma! Mugitu! Jaiki hadi! -esan dio ahizpa txikiagoari, izu-laborrian. Utzi dena eta goazeman lasterka bunkerrera, babestera!

Bihotz taupaka eta kirioak airean dituztela, eskaileretan behera joan dira ziztu bizian, jauzika eta negarrez, ilunpetan, arnasestuka.

Kalera ateraz batera, ohartu dira ez zeudela gerra erdian, Ukrainan, baizik eta Iruñeko auzo batean, beren harrerako etxe ondoan.

Pena amesgaizto makabro bat izan da. Etxera negarrez itzuli dira; pozez.

Xanti Begiristain Madotz (Auritz)



1516ko martxoak 20 ditu

Haizea ikalteatik badator eliza-dorreko kanpaien hotsak luzatuko dira bortuaren parte honetan. Eguneko lehen printzek urtuko dute dakusadan belarrean ihintza. Axuriek bazka freskoa izanen dute, menturaz, neroni itzuli artean.

Ilunak dator egunak ordea. Hotzaz beste, odolak elurra markatu bezala urratu beharko dira hemendik aitzina bideak.

Lerro hauek eskribitu, ardo zagiari hondarreko xorta kendu eta borta zerratuko dut. Noiz arte jakin gabea.

Ele hauek leitzen badira, galdu dugu bataila.

On Pedro Mariskalari ohorea!

Iker Alfonso de Miguel (Uztarroze)



Ardien marraka

Azken gaua Erremendian, urduri gaude, pozik, alai aldi berean.
Berriro lainoaren hezetasuna, udaren usaina, mendien hozkirria, larrearen
goxotasuna, naturaren oihartzuna eta ura, ur freskoa.

Egunsentia iristear dagoenean, mugitu nahian gaude. Truko eta
ezkilen burrunba, gure balaka gero eta ozenago eta aurrean Udi,
Zubigoena, Botin, Txozas, Alforjas, Harrizabala. Ez gara okertuko, ez
galduko, ardibidea gure barruan daramagu.

Burutik ezin kendu orain arte bizi izan dugun lehorraldia, haize
bortitza, hautsa, idortasuna, zero zabalak, artzainaren bakardadea eta
neguko eguzkia.

Iakin badakigu hori bizitzea itzuliko dela, irailaren 18a berriro iritsiko
dela. Aurrean, ordea, hiruhilabete luze bat, artzainaren irria,
PIRINIOA.

Nati Sancet Tanco (Otsagabia)



Prinicen lur azpian

Tann... tacc... tann...

Uraren soinuaren oihartzuna lur azpiko leze honetan.

Hemen, denborak ez digu modu berean eragiten,
pausatu egin da.

Ur putzuetan, mugimendu hutsa dirudi...

arreta jarritz,

nere oroimenean izenik topatzen ez duten ur somorro txikiak ikusten
ditut,

argia beraien gorputzak zeharkatzen uzten dutenatarikoak, gorputz
arinak.

Hezetasuna, argi leuna.

Argia, gero eta leunago.

Argiko orduak badoaz kanpoan,

hemen barruan berri,

denborak ondo patxadan jarraitzen du.

Bat-batean ¡HARA!

Txiiii luzetxo batek hausten du lurpeko isiltasuna,

Ondoren, hego zafren soinuak, bata bestearen ondoren.

Iskanbila azkar sortu da lurpean, eta badoaz saguzarrek,

denak irten dira, Pirinioen lur azpitik, gauak eskainiko dienaren bila.

Peio Zabala Bengoechea (Saragüeta)



"Zu zarelaiko nire bizia; bai, nahi dut"

Urduri nago. Denbora luzez prestatutako unea iristear da, harritzekoa nola desagertu diren luzaroan sentitu ditudan zalantza eta gorabeherak. Zerbait esatea gustatuko litzaidake, eskerrak eman une berezi honetara etorri diren senitarteko eta lagunei baina hitzak atera ezin, zeremonia lekuko dudan anaiari begi-keinua egin diot, konplizitate bila. Lasai dirudi, dotore etorri da. Ea.

Ezkongaiek esan ohi duten "bai nahi dut" etorri zait burura; "zu zarelaiko nire bizia".

Gustatu zait eta nik ere horixe esanen dizut elkar besarkatzen dugun instantean, zu zarelaiko nire bizia, herio. Bizitzen hasiko naizelako hiltzen naizen unean. "Bai, hil nahi dut".

Aitziber Ganuza Quel (Burgi)



Sinkronizazioa

Momentu horretara iristeko gertaerak beldurra ematen zuen.

Elkarri begira zebiltzan gero eta harrituagoak, une horretara arte, bakoitzak pasatako egunak kontatzen zituen bitartean.

- Pena antolatua balego bezala da -batek esan zuen.
- Arian horrela da -besteak erantzun zion.

Ilunabarraz gozatzen jarraitu zuten, urrunean bi irudi zelatatzen zituazela konturatu gabe.

- Lortu dugu -batek esan zuen.
- Beti izan behar zuen bezala dago -besteak erantzun zion.

Imanol Ubau Galarza (Aribe)



Tarrapata

Neguko gau euritsu batean ostotsek esnarazi ninduten mandirien bildurik. Ikuilutik animalien urduritasunak eta artzanoraren zaunkak ere gauaren keleta ireki zuten. Ateak parraka eta zuhaitzen adarrak tartar ari ziren. Aurpegia marruskatu nuen eta zatak jantzita etxeko leihoak ongi itxi ta ikuilura jaitsi nintzen. Oiloak tarrapataka zeuden eta pito-pito eginez burkiaren laguntzaz sartu nituen. Mandoaren zerra marruskatu nuen lasaitzeko eta alatu. Lexumetatik hozmin sartzen zen eta zakuz itxi nituen. Hapiriotik zintzilik dagoen bonbila piztuta utzi ta ohean sartu lozaku. Goizean sua ixiki nuen gosaltzeko baino oiloen arraultzak ttolortak ta maxela pixkoat egin nuen.

Patxi Iriarte Uztarrotz (Uskartze)



Iruñan, 1525eko martxoa

Ziegako leihoan kiribiltzen ditut igande ilunabar hau, inori kontatzeko
lazarregi diren egiak eta nire hezurretako min jasangaitza.

Eta bizitza azkenekotzen ari zaidalarik, hiriko harlauza apurtu eta
lurraren barrenetik jaiotzen ari den lili xuri bat ikusi dut leihoaz
bestalde. Naturaren garaipen xalo horren betetasunean esaten diot adio
bizitzari eta, nire testamentua balitz bez, lore horren hostoetan
atxikita uzten dut etorkizunerako ene mezua: Erronkaribarkoak ere ez
ziren sorginak.

*

XVI. mendean epaitu, kondenatu eta erail zituzten piriniotar guztiei
eskainia. Udaberria iritsi da, lili xuriz jantzia.

Oihane Zuberco Garmendia Glaria
(Erronkari)



Ereriz oroitu, oraimenez erotu

Graturo bezala bere bisita ez da faltako. Badakizu oheratzeaz zaudelarik hor egongo dela, besoak zabalik, zure zain. Berdin dio zeinen bizkor zaren, non ezkutatu edo nora ihes egiten duzun, nola edo hala, aurkitu eta harrapatuko zaitu. Orduak minutu bilakatuko dira; ordu batak, biak, hirurak... eta konturatzen zarenerako, laurak. Ez dauka mugarik, geroz eta gehiago nahi du, gehiegi antza, baina ez dakizu nola gelditu.

Bihar laneguna izanik, goiz jaiki beharra dago eta gaua bukatzeko ordu gutxi batzuk besterik ez dira falta. Orduan, lorik egin barik irautea ikusten duzu irtenbiderik onena, baina azkenean, bere sua itzali eta lo gelditzen zara. Bizpahiru ordu baino ez zara lokartuko, berdin dio, gauza lo egitea da.

Asier Alastuey Ustés
(Erronkari)



EUSKARA IKASLEAK



Zorteko eguna

Aezkoa ibarrean, herri magiko bat dago. Gauza bereziak gertatzen dira.

Joan den neguan, gauero lez, familia osoa sutondoan geunden musean jokatzeko. Txoko batean Zirilo, gure arraina (maskota), bere arrainontzian zegoen igeri egiten eta afaltzen.

Bat-batean, gertatu ohi den bezala, argia joan zen. Pena ilun geratu zen hurrengo goiza arte. Leihotik, tximistak ikus genitzakeen. Eguzkia aterata zenean, konturatu ginen arrainontzia ur gabe zegoela. Zirilo desagertu zen eta bere ordezkariak berde bat zegoen.

Ez dakigu nola gertatu zen halako aldaketa, baina uste dugu kakalardoak zorte ona eman zigula, hurrengo urtean loteria tokatu baitzitzaigun.

*Tere Barberena del Rio
Maite Maisterra Antxorena*



Suaren itzalak

Itzalak agertzen ziren zeren gauean, zeruan ilargia ateratzen zen.
Emakume zaharrenak sua piztu zuten. Lurraren soinuak entzuten ziren.
Mugitzen hasi ziren itzalak, antzinako dantza zirudien. Momentu baten
argi bide bat agertu zen, eta pertsona batzuk ibiltzen. Suziak mugitzen
ziren suaren norabidean. Bi pertsonak lapiko handi-handia ekarri zuten.
Aurreko egunean hartutako sendabelarrekin lapikoa berotu zuten eta
usain gogorra zerion. Sua, sutondora heldu zirenean, bi emakume abesten
ari ziren, Andra Mariri eskainitako otoitz babestua errepikatzen ari
ziren. Sinesmen bereziak zeuzkaten. Herriko gizon helduenak basoko
munstroaren mozorroa jantzi zuten eta haurrak harrapatzeri jolasten
zen. Denak elkarrekin zeuden, beraien gauzak egiten, momentua bizitzen.
Iturissako hiritarrak ziren, lekuan errotzen.

*Cristina Saura
Jara de la Parte
Mikel del Rio*



Ametz bat

Bart amets bat izan nuen. Mendian ibiltzen ari nintzela, zuhaitz bat aurkitu nuen fruitu zapoetsu batekin. Iaten ari nintzenean, langarra pixka bat hasi zen. Kolore bizidun ortzadar handia agertu zen. Gara hartan, ortzadarrek ez zituen koloreak bakarrik, musika ere entzuten nuen. Orhiko txoria hitz egiten ari zitzaidan!

Esnatu nintzelarik, txoria kantatzen jarraitzen zuen leihoa irekita bainuen. Bertan txantxangorri bat eserita zegoen, eta oso alai sentitu nintzen. Une horretan, konturatu nintzen zer den paradisu.

Juantxo Merino Iriarte
Miguel Angel Lorea Burusco



Gure istorioa

Hau ez da emakume ausart baten istorioa, bere beldurrei eta munstroei aurre egiten diena. Ama indartsu baten istorioa, ere ez; gaixorik egon arren, bere seme-alabak atsedetik gabe zaintzen jarraitzen duena. Ez da neska hezi baten istorioa, bere hitzak eta ekintzak beti neurtzen dituenen. Ez da mintzatzen emazte leialari buruz, besteen beharrak bereen aurretik jartzen dituenen. Ez, ez da alaba esaneko baten istorioa, inoiz ez duena agindua urratzen. Ezta amona borrokalari batena ere, bizimodua ateratzeko bere burua egunero sakrifikatzen duena.

Ez, hau da emakume GUZTION istorioa, guztiak ausartak, indartsuak, esanekoak... baina denak prest gure historia aldatzeko.

Izaskun Salicio Castillo



